

Maddi Zumalabe Irastorza, Bastero Kulturguneko hurrengo erakusketaren protagonista

- ‘Laua eta sakona’ lana erakutsiko du, ekainaren 7tik uztailaren 5era bitarte
- Rakel Ubagoren ‘Continuo-Discontinuo’ erakusketa bertan behera geratu da artistaren ezusteko bat tarteko.

Andoainen, 24-05-27.- Apiriletik ekainera bitarteko programazioak azken orduko aldaketa izango du datozen egunetan: maiatzaren 30ean aurreikusia zegoen Rakel Ubagoren ‘Continuo-Discontinuo’ erakusketa ez da zabalduko azkenean, egileak izan duen ezbehar larri bat tarteko. Aurrera begira beste data batzuetan programatu ahal izatea espero da.

Erakusketa gela ez da hutsik geratuko, ordea: Maddi Zumalabe Irastorza artista, Egile Berria saria jaso zuen gaztea, izango da hurrengo erakusketako protagonista. ‘Laua eta Sakona’ lana jarriko du ikusgai Erakusketa gelan, ekainaren 7tik uztailaren 5era.

Artista hau hernaniarra da, baina azken 10 urtetan Donostian bizi da, lanerako estudioa bertan duela. Arte Ederrak ikasi zituen, Italian Masterra egin zuen etaartzelona bi urtez ilustrazio eskolan aritu da. Gaur egun, erakusketak eskaintzeaz gain, Donostia Kulturaren bidez, Kulturetxe desberdinetan pintura abstraktoa eta marrazketa klaseak ematen ditu.